



El profesor, crítico literario y ensayista Jon Kortazar, ayer durante la presentación del libro. :: TELEPRESS

Un libro olvidado arroja luz sobre Gabriel Aresti

Tras una investigación de Jon Kortazar, el Ayuntamiento de Bilbao publica un volumen que revela que Aresti escribió poesía social mucho antes de lo que se creía

:: ELENA SIERRA

BILBAO. El día que la archivera de Euskaltzaindia, Josune Olabarria, le dijo al catedrático de la Universidad del País Vasco Jon Kortazar que te-

nía para él un libro inédito de Gabriel Aresti, lo único que pudo decir Kortazar fue «mmmm». El título del libro ya le sonaba, así que lo primero que pensó fue que tan inédito no podía ser. 'Mailu batekin' era, de hecho, el nombre que recibió un quinteto de poemas que ya se había publicado en el año 1964 en la revista literaria 'Egan', la de Mitxelena, con la que Aresti colaboraba «bastante», recuerda Kortazar.

Pero había algo en aquel volumen mecanoscrito que iba mucho más allá del hecho de que su contenido

hubiera sido o no publicado antes de ahora, que es cuando ve la luz 'Mailu batekin: Biola batekin' tal y como fue concebido por el poeta bilbaíno a principios de los años 60. La edición realizada por Jon y Paulo Kortazar con la financiación del Ayuntamiento de Bilbao de los poemas recogidos en ese original muestra que Aresti comenzó a trabajar la poesía social mucho antes de lo que se creía. También que estos versos, donde se habla de grandes figuras poéticas y donde el autor se sitúa en la línea de «los que murieron en la

Guerra Civil, Federico García Lorca, Lauaxeta y Miguel Hernández», son anteriores o al menos coetáneos del trabajo 'Harri eta Herri' (publicado en 1964).

El libro que estaba en el archivo de Euskaltzaindia data de 1962 –es de suponer que el autor llevaría tiempo trabajando ya en esos poemas–. Es la copia que el bilbaíno presentó al premio literario Lizardi, que no ganó. O que al menos no ganó aquel año, porque el hecho es que en 1965 «presentó el mismo material, con las mismas erratas incluso, aunque con otro orden, y entonces sí». Aquello fue el germen de 'Euskal Harria', libro publicado con el dinero del premio Lizardi en 1967. En principio iban a ser 120 poemas, incluidos esos 31 de 'Mailu batekin: Biola batekin', pero la censura lo adelgazó hasta dejarlo en la mitad. Lo mismo ocurrió con el trabajo de Agustín Ibarrola, el artista al que Aresti pidió su colaboración. También sus grabados fueron censurados. En un guiño a aquella relación entre ambos creadores, la edición presentada ayer cuenta con los dibujos de otro Ibarrola, el nieto Naiel (que ha recuperado algunos motivos utilizados por el abuelo).

Cartas inéditas

«Aquí hay un Aresti reflexionando sobre poesía, siguiendo a Blas de Otero, quizá menos narrativo que en 'Harri eta Herri', más brutal y menos ensimismado, más directo», describe Jon Kortazar. Cuando en 1965 lo presenta por segunda vez al Lizardi, con un nuevo orden, «lo político y social pasa ya a primer plano», insiste.

La edición recoge asimismo nueve cartas inéditas. Una de ellas resulta muy curiosa. En la misiva, Aresti informa a Euskaltzaindia de que ha recibido una postal de Miguel Arruza con un texto irónico: 'Navidad de Año Nuevo Felicidade Completoarekin Pasatu'. Aresti mantuvo varias polémicas con Arruza (1890-1966) un escritor destacado por su purismo lingüístico.

Iktus baten ondorioz euskara galtzen duen emakumearen istorioa

Hainbat ipuin publikatu ostean, Xabier Etxaniz Rojok bere lehenengo nobela atara du. AEKko irakasle da eta AEK bera ere protagonista jarri du

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. «Orain dela lau urte eta piko, lagunarteko afaria egin genuen. Bertan, lagun batek esan zidan lankide baten senarrak euskara galdu zuela iktus baten ondorioz. Orduan, pentsatu nuen niri horrelakorik gertatu ezkeror lanik gabe geldituko nintzatekeela, AEKko irakasle bainaiz, eta Francisco Javier

bihurtuko nintzatekeela, amak txikitzen deitzen zidan bezala. Istorio ona iruditu zitzaidan nobela bat egiteko». Honela deskribatu du Xabier Etxaniz Rojok 'Waterloo-n galdutakoak' eleberriaren sorrera.

Orain dela hamabost urte plaza-ratu zuen lehenbiziko liburua. Bost ipuin-bilduma ditu atereak eta haxe du lehenbiziko nobela. Xabier Etxaniz Rojo txundituta gelditu zen afari hartan entzundako istorioarekin eta argibide gehiago biltzea erabaki zuen. «Sei hilabete ostean, iktusa izandako gizon harengana jo nuen. Bi aldiz elkartu ginen, eta gero posta elektronikoz jarraitu genuen harremanetan», adierazi du.

Nobelako protagonista



Etxaniz Rojo, atzo. :: MICHELENA

magusia Bakarne da, Valentzian jaio-tako 33 urteko emakumea. Iruna etorri da, Irungo erdal giroan lur hartu beharrean euskal giroa ezagutu du hasiera-hasieratik, eta euskara ikastea erabakitzen du. AEKn has-tan da eta irakasle duen Mikel eta biak maitemindu egiten dira eta bikote bihurtu. Gero, Bakarne ere irakasle hasiko da, baina halako batean

iktusa izaten du eta euskara joan egiten zaio burmuinetik.

AEKk berak presentzia nabarmena du nobelan. «AEKk merezi zuen nobela bat, ez zegoen bat bera ere», esan du erakundean lanean 23 urte emandako pasaitar honek. Liburuan agertzen dira Korrika prestatzeko eszenak, agertzen da baita ere 'bahiketa-afera'. Orain dela urte dezentte, polizia AEKren kontra egin zuen, uste zuelako euskaltegi batean bahiketa bat prestatzen ari zirela, baina ez zegoen horrelakorik; material didaktiko batzuetan bahiketa-istorio bat lantzen zen, hori besterik ez.

Hiru planotan garatzen da nobela. Batetik, kontatzen da gaur egun nola egiten dioten aurre bizitzari Bakarne eta Mikelek. Bestetik, Mikelek koaderno batean idatzitako pasarteak daude, horietan gizonak hausnarketak egiten dituelarik emaztearen arazoaz, aitatasunaz, AEKko lanaz eta beste zenbait kontuz. Eta beste planoan aspaldiko egoera ageri da, Mikel irakasle eta Bakarne ikasle zireneko garaia. Hitz egiten gaixotasunaz, baina Etxaniz Rojok garbi

BAI HORIXE
PELLO ESNAL

FOUCAULD



Karga-karga eginda dator abendua, urtero bezalaxe. Hasteko, bada zer ospatua eta nora joana datozen egunetan. Batetik, Euskararen Eguna, larunbatean. Bestetik, Durango-ko Azoka. Nafarroan, Xabierko Frantziskoren eguna...

Bihar, berriz, ehun urte Foucauld hil zutela gizon basati eta bihotz gabe batzuke, Saharako desertuan, Aljeriako partean.

Denetik izan zen Charles de Foucauld (Estrasburgo, 1858 – Tamanrasset, 1916), berrogeita zortzi urtean zehar, sei urte-rekin umezurtz geratuta. Lehenik, militar Aljeriano, eta esploratzaile eta geografo Marokon. Gero, trapako monje eta apaiz. Beti sutsu eta bitalista, bizitzari ahalik eta zukurik handiena atereaz, azken tantaraino estutuz.

Horrexegatik, erraz identifikatzen gara harekin. Eta, neurri batean behintzat, hura bezalakoa izan nahi genuke. Baina, hori bai, gauzak azken muturreraino eramane gabe. Badaezpada.

Eraz izan dezakegu haren bizitzaren berri. Horretarako, hortxe dugu aukera Interneten. Lehen hurbilketa moduan balio lezake. Baina, gehiago sakondu nahiz gero, aukera polita eskain diezaguke biografia nobelatu on bat irakurtzeko, batik batik autobiografia moduan emana badago. Horieta bat dugu 'El olvido de sí', Pablo d'Ors idazleak ondua.

Horko zenbait pasarteren harira, errazago uler dezakezu, esaterako, zer izan zen Xabierko Frantziskoren bakardadea, Asia urrunean. Edo nolako lana egin zuen Foucauldek, tuaregtarren hizkuntzaren hiztegia egiten eta haien ahozko tradizio oparora bezain ederra biltzen.

Are gehiago jakin nahi izanez gero, probatzea bezalakorik ez dago. Bizitzako une bakoitzean utz diezaiokegu biziari gugan lan egiten.

utzi nahi izan du: «Hau ez da medikuntzari buruzko liburua».

Bost ipuin-liburu publikatu ditu Etxaniz Rojok. «Hasierako ipuinak nahiko motzak ziren. Poliki-poliki ipuin gero eta luzeagoak egiten hasi nintzen. Halaxe ateratzen zitzaizkidan. Eta istorio honekin hasi nintzenezan garbi neukan nobela atariko zela. Istorio honek askorako ematen du', pentsatu nuen».